

aditza badut

SENITARTEKO XETRAK

Xabier Lasa

Polizia kontrolak

Bizkaiko PPko zinegotzi batek indarkeriarekin kolaboratzea leporatzen zion EITBko erdarazko iratiari, *Radio Euskadi Ta Askatasuna* izenburupeko artikuluan, Espainiako egunkari batean, herenegun. Nonbait, *El Altavoz* saioan, zirkulazioaren berri ematean, Guardia Zibilak jarritako kontrola aipatzen zuten. Hain justu ere, RE kritikatutako behar balitz, diot nik, justu kontrakoagatik behar luke izan. Zerbitzu publikoa eskaintzeko ideia obsesiboa adierazten du irati horrek, errepideen egoerari dago-

Espainiako ikus-entzunezko panoraman egiten ari diren mugimenduek botere kontzentrazioa bilatzen dute, iritzi aniztasuna murriztera datoz, nekez doaz euskal kulturaren alde... Horri guztiari minnez eta nazkaz behatzen dion ikus-entzule soilarentzat, zenbait pertsona mediatikoren bizkar barre maltzurak egitea da kontsolamendu bakarra. Horretan dihardugu Alierta, Gurrutxaga, San Sebastian eta P.J. Ramirezek antzeztan ari diren komedia esperpentikoan isurtzen ari diren miseria pertsonal, botere gose eta hipokrisiaren kontura. (Azken unekoa: SS anderearen fan-on pozerako, Luis Herrero fitxatu du COPEko tertulietarako).

kionez. Ordu erdiro zirkulazioaren berriekin itolarritu egiten gaituzte entzule lasaiak. Pentsatuko dute gehienok Bilboko kalerik eskizofrenikoena omen den Sabino Aranan zehar gabiltzala goizetik gauera. Ordea, xehetasun guztiak eman behar horretan, ia beti ahanzten zaie —zinegotziak aipatzen duen horretan salbu— polizi kontrolen atala. Esango didazue gorabeheren partean sartzekoa den ala ez. Hori ere zerbitzu publikoa eskaintzea da; kontrol horiek maiz ilara luzeak eragiten dituztelako; eta uniformedunen hatzek «hautatzen» bazaituzte bazterrera zaitezten, gertaera harrezkero bizitzako istripurik gogaikarrien artean gogoratuko duzulako.

LABURAREN

Ramon Gil Ostoagaren anaia bihar ETB2ko 'Politicamente incorrecto' saioan

Estibalitz Ruiz de Azuak aurkezten duen *Politicamente incorrecto* saioan, euskal preso politikoen inguruan hitz egingo dute bihar, 23:00etan. Ramon Gil Ostoagaren heriotzaz ariko dira, haren anaia Patxi Gilekin. Platoan, beste zenbait gonbidatu egongo dira: Gil Ostoaga familiaren abokatu Carmen Galdeano, Mikel Sueskun preso ohia eta Jose Antonio Rodriguez abokatu ohia. Gero, Europako Batasunaren etorkizunaz mintzatuko dira CIUko Ignasi Guardans, PSOEko Diego Lopez Garrido, EAJko Josu Ortuondo eta PPko Marcelino Oreja.

Durangoko Azoka aste osoan ETBko 'Postdata' saioan

Bihartik abenduaren 6a arte, Durangoko Azokari eskainiko dizkio minutu guztiak ETB1eko *Postdata* programak (arratsaldeko 14:45ean eta gaueko 23:50ean). Joxe Amantegi 37. Azokako kartelaren egilea eta Pedro Pablo Arrinda historialaria elkarriketatuko dituzte, baita omendutako Federiko Balaustegigoitia euskaltzalearen alabak ere.

'Victimas de la transición' lanaren bigarren zatia gaur ETB2 katean

Mirentxu Purroyk gidatzen duen *Mundo.Hoy* saioan, *Victimas de la transición* dokumentalaren bigarren eta azkeneko zatia emango dute gaur, 14:15ean. Manuel Fraga eta Saenz de Santamaria jeneralaren adierazpenak jaso dituzte lanean. Eta 1977an Madrilgo Atocha geltokian gertatutako hilketaren berri emango dute.

ETB1. Bihar hasiko dira grabatzen 'Trikitraka Trikitron', eta urtariletik aurrera emango dute

Pailazoen saio berria abian



ETB Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen programa berri bat egingo dute Euskal Telebistarako.

Programa berriko maskota Pelipe izeneko tren magikoa izango da

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen 30 urte bete dituzte aurtur Euskal Herriko neska-mutikoei barrea eragiten. Oraindik sasoiaren daude, ordea, ondo pasatzeko gogoz eta hurrekin tarte atseginak pasatzeko itxaropenarekin.

Datozen egunetan Tolosako Leidor aretoan egongo dira hiru pailazoen, ETBko *Trikitraka Trikitron* saio berria grabatzeko. Bi aste barru, Basauri Sozial antzokira joko dute Txirri, Mirri eta Txiribitonek. Eta

urtariletik aurrera, Arrasate, Lasarte, Iruñea, Azkoitia, Gasteiz, Donostia eta Santurtzi bisitatuko dituzte. Programa berria urtariletik aurrera ematen ETB1en, pailazoen ohiko ordu-tegian (larunbatetan, bazkalosteetan).

Trikitraka Trikitron saioko protagonista garrantzitsuenak Pelipe tren magikoa izango da. Tren horren barnean sartuko dira pailazoen, lau haizeetara alaitasuna eta umore ona zabaltzeko. Pelipe tren magikoa da maskota, eta hainbat joko

egingo dituzte haren laguntzarekin. *Trikitraka Trikitron* saioaren izen bereko abestiarekin hasiko dira astero pailazoen, eta egunero beste hiru abesti ere kantatuko dituzte.

Lagun berriak izango dituzte astero pailazoen

Pelipe tren magikoa, hainbat lagun bilduko dira Txirri, Mirri eta Txiribitonekin: Maitane Segurrola aurkezlea, Pepitto makinista (Beñat Mendizabal aktorea), Galaxi bidaiaria (Loinaz Jauregi), Inxala fakirra (Patxi Fadrique), Marcel magoa (Aitor Marcilla) eta abar. Aurreko urteetan, *Barrebusa* eta *Altza Porru* saioetan pailazoen aldamenean egon diren beste lagun batzuk ere bilduko dira Pelipe tre-

nean: Txan magoa, Elbis sabelitzuna eta Kausai gaiztoa, besteak beste.

Aipatu dugun moduan, hiru hamarkada bete dira Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen hirukotea sortu zela. Euskal Telebistarako saioak egiten, bestalde, ia 20 urte daramatzate. *Don Don Kikilikon* saioarekin hasi zirenetik, ETBko klasiko bihurtu dira dagoeneko.

Iazko denboraldiko *Altza Porru* saioarekin, bestetik, bideo bat grabatu berri dute. Durango Liburu eta Disko Azokan, salgai izango da EITBren erakusmahaietan. Eta abenduaren 6an, eguerdian, Durangon bertan izango dira Txirri, Mirri eta Txiribiton, bideoak eta liburuak sinatzen.